

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea Sologana gizarte eta kultura etxearen arautegi orokorraren aldaketari

Espediente horri alegaziorik jarri ez zaionez, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

Sologana gizarte eta kultura etxearen arautegi orokorra

Hitzaurrea

Sologana gizarte eta kultura etxea udal ekipamendu bat da eta bertan kultura, kirol, gizarte eta komunitate arloko zerbitzuak eta jarduerak garatuko dira zentzurik zabalenean.

Haren helburua da herritarrei biltzeko, prestakuntza emateko eta aisialdiaz gozatzeko toki bat eskaintzea ekipamenduaren zerbitzu eta jardueren bidez; horrela bada, aisialdiko ohitura osasungarriak sortzen eta bizi kalitatea hobetzen lagunduko da.

Lehenengo titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Arautegi honen xedea da Sologana etxearen instalazioak eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Arautegi hau instalazio osoari aplikatuko zaio, nahiz eta jardueraren kudeaketa hirugarren bati agindu.

3. artikulua. Aldaketak

Arrantzua-Ubarrundiako Udalak arautegi honetan ezarritakoa argitzeko, aldatzeko edo garatzeko xedapen edo ebazpenak emateko eskubideari eusten dio.

Arautegi hau eta zentroari buruz urtero egin daitezkeen arautegiak herritarren esku egongo dira udal bulegoetan, instalazioaren informazio zerbitzuetan eta webgunean.

Bigarren titulua. Erabiltzaileak

4. artikulua. Erabiltzaileen definizioa

Arautegi honen ondorioetarako, erabiltzailetzat hartuko da Sologana gizarte eta kultura etxera bidez eta haren instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko sartzen den pertsona oro.

Ez dira erabiltzailetzat hartuko euren lan zeregina edo eginkizun profesionala betetz instalazio hauetara sartzen diren pertsonak.

5. artikulua. Erabiltzailearen izaera

5.1. Banako erabiltzailea.

Oro har banako erabiltzaileak Sologana gizarte eta kultura etxera sartu eta haren instalazioak erabili ahal izango dituzte arautegi honetan ezartzen den bezala.

Erabiltzaile zehatz motak ezarri ahal izango dira instalazio jakin batzuei begira.

5.2. Erabiltzaile kolektiboa

Sologana gizarte eta kultura etxeko erabiltzaile kolektibotzat hartu ahal izango dira instalazioak erabiltzeko eskabidea egiten duten klub, elkarte eta talde guztiak.

6. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Honako eskubide hauek izango dituzte erabiltzaileek:

6.1 Sologana gizarte eta kultura etxeko sarbide askeko aretoetara sartu ahal izatea haiek jendaurreko ordutegi eta egunetan zabalik daudenean.

6.2 Sologana gizarte eta kultura etxea osatzen duten zerbitzuak erabili ahal izatea araudiaren arabera.

6.3 Plaza librerik egonez gero, kirol, aisialdi eta kultura ikastaroetan izena eman eta matrikulatu ahal izatea; horietan beharrezko irakaspenak jasoko dituzte, dagokien kuota ordaindu eta gero. Indarreko prezioak udalak ezarriko ditu une bakoitzean, erabiltzaile kategoriarekin bat etorritik. Kontratutako ikastaroa arrazoi justifikatuengatik bertan behera utzi behar izanez gero, udalak haren truke ordaindutako zenbatekoa itzuliko du.

6.4 Udalak dituen datu pertsonalak eskuratu, aldatu eta ezeztatzea, Datuak babesteko Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua. Erabiltzaileen eskubideen bermea

Sologana gizarte eta kultura etxearen instalazioetako erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, erreklamazio orriak eskura izango dituzte atezaintza zerbitzuan. Edozein erabiltzailek baliatu ahal izango ditu orriok, NANA, izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta e-maila adieraziz. Erreklamazioa egiten duen pertsonak kopia bat hartuko du eta horren erantzuna jasoko du. Idatziz edo e-mailez egin daiteke.

Erabiltzaileek instalazioetako zerbitzuen edozein langileri edo arduraduni identifikatzeko eskatu ahal izango diete, erreklamaziorako behar denean.

8. artikulua. Erantzukizun zibileko aseguru

Udalak erantzun zibileko aseguru bat du instalazioaren akatsen batek sorrarazitako istripu guztiei begira.

9. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Banakoek nahiz taldeek honako betebeharrak izango dituzte:

9.1 Instalazioak, zerbitzuak eta ekipamendua egoki eta zuzen erabili behar izango dituzte, haiei eta gainerako erabiltzaileen osasunari eta eskubideei gaitz-katerik eragin gabe. Zabarkeriaz edo arduragabekeriak jokatzegatik sortutako kalteak horien erantzulearen kontura izango dira.

9.2 Funtzionamenduan arazoren bat badago, zerbait apurtu bada, hutsen bat gertatu bada edo araudi honetan xedatutakoa betetzen ez bada, horren berri eman beharko diete instalazioetako langileei. Arau hauste larria da pertsona batek egindako kalteen berri ez ematea.

9.3 Beste erabiltzaileak errespetatuko dituzte, denak batera egoteko behar diren neurriak hartuz.

9.4 Beste pertsona batzuen lehentasunezko eskubideak errespetatu behar dituzte, batez ere alde aurretik ordua erreserbatu badute.

9.5 Ezarritako kuotak garaiz ordainduko dituzte eta instalazio, ikastaro eta bestelako jarduerarako finkatutako orduen erreserba errespetatuko dute.

9.6 Udalak instalazioetako langileen bitartez ezartzen dituen arauak eta jarraibideak onartu eta beteko dituzte, langileon zeregina erraztuz betiere. Nahitaezkoa izango da beharginenganako errespetua azaltzea, eta behar moduan beteko dira haien argibideak.

9.7 Instalazioak zaintzeaz arduratzen diren langileek halaxe eskatzen dietenean, txartelaren bitartez identifikatu beharko dira edo erreserba agiria erakutsi beharko dute.

9.8 Komunak, dutxak eta aldagelak egoki erabili beharko dituzte, zaindu beharreko higiene neurriak zainduz.

9.9. Arautegi honetan ezarritako gainerako arauak beteko dituzte, bai eta erabiliko den zerbitzuarenak diren arauak ere.

Hirugarren titulua. Gizarte eta kultura etxera sartzeko araudia

10. artikulua. Jendearentzako sarrera

Sologana gizarte eta kultura etxearen aretoak sarbide publiko eta askekoak dira berez, alde zurretik prezio publikoa edo tasaren bat ordaintzea eskatzen duten jarduerak nahiz instalazioak izan ezik.

Aurrez ordaintzea eskatzen duten erabileren eta jardueren prezio publikoak eta tasak instalazioetara sartzean edo erreserbatzean indarrean diren udal ordenantza fiskaletan ezarritakoak izango dira.

11. artikulua. Gizarte eta kultura etxeko ordutegiak

Sologana gizarte eta kultura etxeak jendaurreko irekiera eta itxiera ordutegia izango du, eskaintzen dituen zerbitzuak kontuan hartuz; ordutegi hori gizarte eta kultura etxearen sarreran jarriko da.

12. artikulua. Adin txikikoen sarrera

Segurtasun arrazoiak direla eta, 8 urtetik beherako haurrak 18 urtetik gorako pertsonak lagun dituztela sartuko dira gizarte eta kultura etxera haien ardurapean, ikastaro edo lantegietara doazenean izan ezik, edo jardueraren arduradunak diren langileak dituzten ikastetxeen, klubien edo talde antolatuen parte direnean.

13. artikulua. Animalien sarrera

Oro har debekatzen da animaliak gizarte eta kultura etxera sartzea, salbu eta gidari edo segurtasun zereginak betetzen dituztenak. Dena dela, animalioek lorategi eta terrazetara sartu ahal izango dira loturik betiere.

14. artikulua. Komunikabideen sarrera

Komunikabideak gizarte eta kultura etxera aurrez baimenik eskatu gabe sartu ahal izango dira bertan programatuta dauden ikuskizun publikoen eta kirol lehiaketan gaineko informazioa emateko; horretarako, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Gizarte eta kultura etxearen ohiko funtzionamendua ez oztopatzea.
- Gizarte eta kultura etxea irekitzeko edo ixteko ordutegia ez aldatzea.
- Grabazio orokorrak direnean, pertsonen intimitateari ez eragitea. Hala ez denean, filmatu edo elkarrizketatuko diren pertsonen berariazko baimena behar izango da.
- Pertsonen intimitatea, segurtasuna edo eraikinaren segurtasuna larri kalte dezaketen gertaerarik jazo ez izatea (ezbeharrak).

Gainerako kasuetan komunikabideek baimena behar izango dute alde zurretik.

Laugarren titulua-instalazioak erabiltzeko araudia

15. artikulua. Instalazioen ohiko eta ezohiko erabilerak

Sologana gizarte eta kultura etxea normal erabili ahal izango da, haren xede nagusiaren arabera, edo salbuespenezko erabilera ere eman ahalko zaio, xede horrekin zerikusirik ez duena.

Instalazio baten salbuespenezko erabilera kasuetan, arautegi honetako bidezko arauetaz gain, aurrera eramango den jarduerari dagokion berariazko araudia aplikatuko da.

16. artikulua. Tabakoa, janaria eta edariak kontsumitzeari eta haien ontziei buruzko arauak

Sologana gizarte eta kultura etxearen barruan debekaturik dago apur daitezkeen ontzidun edariak kontsumitzea, kafetegi-jatetxearen esparruan izan ezik.

Instalazio osoan debekaturik dago tabakoa kontsumitzea, kanpoaldeko terrazetan eta lora-tegietan izan ezik.

Instalazioan jatea debekaturik dago, berariak baimendutako jardueretan izan ezik.

17. artikulua. Gizarte eta kultura etxeko materialen erabilera

Gizarte eta kultura etxean burututako jarduera guztiek material egokiak izan beharko dituzte eta material horien berariazko erabilera-arauek arabera erabili beharko dira.

Material horien erabileraren edo jardueraren beraren ondorioz ezin izango da zentroko ondasun higigarri edo higiezinaren egoera aldatu jarduera egiterakoan.

Espazio bakoitzean erabilera orokorreko materiala egonez gero, material hori erabiltzaileen esku utziko da eta haien ardura izango da materiala batetik bestera eramatea, jasotzea eta biltegitratzen den tokira itzultzea.

Gizarte eta kultura etxean eskuragarri ez dagoen material osagarriren bat erabiltzea beharrezkoa denean, hango arduradunaren baimena behar izango dute erabiltzeko, eta erabiltzailea izango da erabilera horrek sorraz ditzakeen ondorioen erantzulea.

18. artikulua. Jantzera egokiaren erabilera

Zerbitzu eta instalazioen erabiltzaileek kasu bakoitzean eskatzen den berariazko jantzera erabili beharko dute jarduera burutzeko.

19. artikulua. Materiala biltegitratzea

Burutzen den jarduerak gizarte eta kultura etxeko erabiltzaileen materiala biltegitratzea eskatzen duenean, materiala armairuetan, tiraderetan edo berariak horretarako prestatutako tokietan jarri beharko da, udal baimena lortu ondoren.

Udala ez da inondik eta inora ere arduratuko Sologana gizarte eta kultura etxean biltegitratutako material pribatuak zaindaz eta gordetzeaz.

20. artikulua. Argazki kamerak, bideoak edo irudiak zein soinuak hartzeko beste edozein tresna erabiltzea

Erabiltzaileen intimitatea zaindu eta errespetatze aldera erabat debekatuta dago argazki-kamerak edo bideo-kamerak erabiltzea, baita pertsonen intimitatea urra daitekeen gela guztietan telefono mugikorrek, PDA edo funtzio hori duten beste gailu batzuk erabiltzea ere. Guztiz debekatuta dago komunetan, aldageletan eta antzeko getetan irudiak hartzea.

Espazio komunetan irudi pribatuak hartu ahalko dira, baldin eta irudietan ageri diren pertsonak ez dutela horrelakorik nahi adierazten ez badute.

Irudiak eta soinuak gizarte eta kultura etxeko toki komunetan hartzen direnean eta informatzeko xedea dutenean, arautegi honetako 14. artikuluan xedatutakoa beteko da.

21. artikulua. Udalarena ez den publizitatea jartzea edo erakustea

Udalarena ez den publizitatea jartzeko, nahiko espazio erabilgarri egon beharko da.

Debekatuta dago publizitatea ondorengo kasuetan jartzea:

- Publizitateak alkohol edariak eta tabakoa kontsumitzera bultzatzen duenean, mezu xenofoboak dituztenean, legez kanpoko substantziak kontsumitzera bultzatzen duenean edo, oro har, indarrean den legeria urratzera bultzatzen duenean.

- Agertzen diren mezuek edo irudiek pertsonen duintasunari edo animalien eskubideei eraso egiten dietenean eta konstituzioan onartutako balioak eta eskubideak urratzen direnean, bereziki haurrak babesteari eta hizkuntzaren edo irudien erabilera sexistari dagokienez.

- Publizitate euskarrian iragarkia egiten duen erakundearen datuak argi jasotzen ez direnean edo iragarritako mezuak edo edukiak ez dutenean argi azaltzen iragarkiaren helburua.

Udalak, hala ere, egokitzat jotzen ez dituen iragarkiak kentzeko eskubideari eusten dio.

22. artikulua. Produktuen salmenta

Debekatuta daude zuzenean edo zeharka edozein produktu saltzea helburu duten jarduera guztiak, saltzeko arrazoa soziala edo ongintzazkoa denean eta udalak berariaz baimentzen duenean izan ezik.

23. artikulua. Gauza galduak

Gauza galduak atezaintzan gorde, eta "gauza baliotsu" nahiz "jantziak eta beste" gisa sailkatuko dira.

"Gauza baliotsuak" aurkitzen direnetik egunetik hamabost egunen buruan jabeek erreklamatu ez badituzte, Ertzaintzaren bulegoetara bidaliko dira, eta handik aurrera haiek izango dira galdutako gauza horien erantzuleak legezko jabeen aurrean.

"Jantziak eta beste" hiru hilabetez gordeko dira gizarte eta kultura etxean bertan eta, epe hori igaro eta jabeek erreklamatu ez badituzte, ongintza edo laguntza erakunderen bati emango zaizkio, edo materialak birziklatzeko tokietara eramango dira.

24. artikulua. Armairu zerbitzua

Armairu zerbitzuak gizarte eta kultura etxeko erabiltzaileek baino ezingo dituzte baliatu, eta jarduerak irauten duen denboran baino ez. Hura amaitutakoan armairua libre eta hutsik utzi behar izango da eta, edonola ere, gizarte eta kultura etxea ixteko ordua izan baino lehen.

Armairuetan ezingo da utzi instalazioei edo gainerako erabiltzaileei arriskuren bat ekar liezaiekeen gauzarik.

Armairuetan uzten diren gauzek ez daukate udalaren gordailu kontratu baten bermerik; alegia, udalak ez du gauza horiek zaintzeko erantzukizunik. Beraz, udalak ez du erantzukizunik izango erabiltzaileei armairuetatik gauza baliotsurik edo dirurik kentzen badiete.

Egunero, lanaldia amaitutakoan, zentroko langileek hustu gabeko armairuak garbitu ahal izango dituzte. Bertan aurkitzen diren materialak zein jantziak gauza galdutzat hartuko dira, aurreko artikulua xedatutakoaren ildotik.

25. artikulua. Kalteak

Udalak bere esku dituen legezko tresnen bidez eskatuko du erabiltzailearen batek nahita edo utzikieriaz instalazioetan egindako kalteak konpontzeko. Udalekoa eta udaleko programaziokoa ez den pertsona edo entitate batek (federazioek, taldeek, elkarteek, ikastetxeek edo bestelako taldeek) antolatutako jarduera edo ekitaldiren batean gertatu bada kaltea, kalteen erreklamazioa haiei egingo zaie, jarduera edo ekitaldia antolatzeko arduradunak dira eta.

Kalteen erreklamazio horien izapideak ez du eraginik izango arautegi honetan nahiz aplikagarri diren gainerakoetan jasotzen diren arauak ez betetzeak berekin ekar ditzakeen administrazio zigorrei dagozkienetan.

Bosgarren titulua Ikastaroak, lantegiak eta prestakuntzako beste jarduera batzuk

26. artikulua. Jardueren ezaugarriak

Udalak askotariko jarduera programa eskainiko du gizarte eta kultura etxean, betiere eskariaren arabera zein interesgarritzat jotzen diren programen arabera.

Jarduera bakoitzari begira eta onetsitako prezio publiko edo tasen arabera eta jardueraren ezaugarri berezien eta jarduerak burutzeko tokiaren arabera, honakoak ezarriko dira: kuotak eta zein pertsona eta talderentzat diren, noiz emango diren, egunak, ordutegiak, sartzeko baldintzak, non gauzatuko diren, izena emateko epeak eta izena emateko modua.

Informazio hori eskura egongo da Sologana gizarte eta kultura etxean eta udal bulegoetan; era berean, udalaren webgunean eta egokitzen hartzen diren gainerako komunikabideetan argitaratuko da, ahalik eta zabalkunderik handiena izateko.

Udalak ez die eskatzaile guztiei bermatuko jardueretan lekua izango dutenik. Hori dela eta, eskariak horrela egitea aholkatzen duen jardueretarako, zozketa bat egingo da.

Ikastaro eta lantegi guztiek, gauzatuko badira, gutxienerako lagun kopuru bat bildu beharko dute ikastaro bakoitzerako, ikastaroak hasi baino zazpi egun lehenago.

Ikastaro edo lantegien iraupenean etenaldiak ezarri ahal izango dira, jaiegunak, zubiak edo oporraldiak direla eta. Denboraldi bakoitzean jakinaraziko da zein diren, eta ez dute dirua itzultzeko eskubiderik emango jardueraren etenaldia dela eta.

27. artikulua. Izen ematea formalizatzea

Izen ematea ez da behin betikotzat joko harik eta ordainketa egin eta kasuan kasu deialdian eskatzen diren egiaztagirak aurkeztu arte. Agiri horiek aurkezteko gehienezko epea izena emateko orrietan adierazten dena izango da. Udal ordenantza fiskaletan indarrean dauden arauak aintzat hartuko dira.

Prezio murriztua edo berezia duten erabiltzaileek eskubide hori frogatzen duen agiria aurkeztu beharko dute izena ematerakoan.

Seigarren titulua. Espazioak erreserbatzea eta alokatzea

28. artikulua. Erreserba daitezkeen espazioak

Sologana gizarte eta kultura etxeko espazio bat erreserbatzeak eta alokatzeak esan nahi du eraikineko toki jakin baten erabilera eskatu duela erabiltzaile batek berariazko xede baterako eta nolabaiteko aurrerapenarekin, betiere udal ordenantza fiskalek ezarritakoarekin bat etorritik. Erreserba eta aloka daitezkeen espazioak ordenantza horietan zehaztuko dira eta libre daudenean eta eskaeran adierazitako jarduera zehatza burutzeko baldintzak betetzen dituztenean erabili ahal izango dira.

Instalazioen erabilerarako baimena ematea udalak antolatutako edo baimendutako ekintzen mende egongo da eta ezingo da erreklamaziorik egin, egoera horren ondorioz aurrez baimendutako lagapen ordutegia eten edo aldatu beharra badago. Hala ere, ahal dela 48 ordu lehenago emango da horren berri.

29. artikulua. Espazioen erreserbak eta alokairuak eskatzeko baldintzak

Espazioak erreserbatzeko eta alokatzeko eskaera jarduera bat burutu nahi duen edozein pertsona edo talde erabiltzailek egin ahal izango du arautegi honen atarikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

Erreserbaren bat baimendutakoan, udalari idatziz jakinarazi beharko diote eskaerako datuetan egondako aldaketa oro.

Espazioen erreserba egiten denean eta erreserbak irauten duen denboran talde, elkarte, klub edo erakunde eskatzaileko arduradun bat egon beharko da bertan.

Prezio publikoek ez dituzte barnean hartzen muntaketa lanak edo aparteko prestatze lanak. Espazio baten erreserbaren onuradunek, aurrez itundutako adostasuna izan ezean, beren bitarteko teknikoak izan beharko dituzte (langileak eta materiala) jarduerak garatzeko. Elementu jakin batzuk erabili edo muntatzeko, udalak erabaki ahalko du zein enpresak edo pertsonak egin behar dituzten lan horiek, kontuan hartuta lan horien eta materialen garraioaren kostua beti entitate eskatzailearen gain geldituko dela.

Udalak baldintza bereziak jar ditzake espazioen erreserba batzuetarako, arautegi honetan ezarritakoa bete dadin; era berean, salbuespen gisa, udalaren organo eskudunek espazio batzuk erabiltzeko baimena eman dezakete hemen ageri ez diren baldintzetan.

Udalak alokairuaren zenbatekoa itzuliko du, baldin eta alokairu hori udalaren erabakiaren bidez ezeztatzen bada edo instalazioen egoerak erabilera egokirik ahalbidetzen ez badu. Itzulketa izapidetzeko erreserba ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

30. artikulua. Erreserba motak

Erabilera aukera hori ematen duten espazioak erreserbatu eta alokatzeko eskaera gizarte eta kultura etxeko atezaintzan, udalaren webgunean edo gizarte eta kultura zerbitzuaren bitartez egin daiteke. Horretarako aukera hauek daude:

Denboraldiko erreserbak. Denboraldian zehar garatzen diren jarduerak modu programatuan erabiltzeko bide ematen duten espazioetarako.

Zuzeneko erreserba arruntak. Zuzenean erabil daitezkeen espazioetarako, baldin eta kasu bakoitzean ezartzen diren arauak onartzen badira, esku hartze berezirik (espazioa aldatzea, materiala osatzea, langileak...) behar ez bada, zuzenean atezaintzan egiten dira, ezarritako prezio publikoa ordainduta.

Zuzeneko erreserba bereziak. Administrazioek, elkarteek edo erakundeek unean uneko jardueretarako egindako erreserbak.

31. artikulua. Instalazioko erreserba bat baliogabetzea

Behar izanez gero, udalak erreserba bat baliogabetu dezake, instalazioa gaizki erabiltzen delako edo egindako jarduerak erreserbaren jatorrian zeuden zergatien kalterako direlako.

Era berean, udalak bere gain hartzen du instalazioak erabiltzaileei eta jendeari oro har erabat edo partzialki ixteko eskubidea, hainbat zergatiren ondorioz erabiltzean arriskuren bat egon daitekeela erabakiz gero.

Zazpigarren titulua. Zehapen araubidea

32. artikulua. Bete beharrekoak ez betetzea

Arautegi honetan jasotzen diren arauak ez betetzea arau haustetzat joko da, eta, hortaz, zehapena jarri ahal izango da halakoetan. Atezaintza zerbitzuak gertaeren berri emango dio organo eskudunari, hark ezarri beharreko zehapenak ezar ditzan.

33. artikulua. Arau hauste oso larriak

Honako hauek arau hauste oso larritzat joko dira:

a) Sologana gizarte eta kultura etxea edo bertan emandako zerbitzuren bat erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuei erabiltzea eragoztekoa.

b) Gizarte eta kultura etxearen ohiko funtzionamendua eragoztekoa edo horretarako oztopoak jartzea.

c) Eraikina edo bertako instalazio, ekipamendu, azpiegitura edo elementuak hondatu edo haiei kalteak eragitea, baldin eta 299,00 euro edo gehiago balio badute.

d) Gizarte eta kultura etxea erabiltzen ari diren pertsonen nahiz bertako langileei fisikoki eraso egitea.

e) Bi arau hauste larri edo gehiago izatea.

34. artikulua. Arau hauste larriak

Honako hauek arau hauste larritzat joko dira:

a) Gizarte eta kultura etxeko espazio eta zerbitzuetan elkarbizitza nahastea.

b) Gizarte eta kultura etxearen funtzionamendua eta eskaintzen dituen zerbitzuen funtzionamendua nahastea eta zerbitzu horien berriarazko arauak eta arautegi honetan ezarritako arauak ez betetzea.

- c) Zerbitzu eta espazioak egoki ez erabiltzea eta baimendutako jardueraz bestelakoak egitea.
- d) Ezarrita dagoen prezio publikoa edo tasa ordaindu gabe sartzeari zerbitzuetara.
- e) Ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo osagaietan kalteak eragitea, baldin eta 299,00 eurotik beherakoak badira.
- d) Gizarte eta kultura etxea erabiltzen ari diren pertsonak nahiz bertako langileak iraintzea.
- g) Bi arau hauste arin edo gehiago izatea.
- h) Emandako txartelak manipulatzeko eta faltsutzea.
- i) Norberak eragindako kalteen berri ez ematea.

35. artikulua. Arau hauste arinak

Honako hauek arau hauste arintzat joko dira:

- a) Jarduera edo zerbitzuen arduradunen ohar edo aginduei jaramonik ez egitea.
- c) Zalaparta sortzea edo jarduerak eteten dituen beste edozein ekintza arin.

36. artikulua. Zehapenak

Arau hauste oso larriak 1.500,01 euro eta 3.000 euroren arteko isunarekin zehatuko dira, eta pertsona horri erabiltzailearen eskubidea behin betiko kenduko zaio.

Arau hauste larriak 750,01 euro eta 1.500 euroren arteko isunarekin zigortuko dira, eta pertsona horri erabiltzailearen eskubidea aldi baterako kenduko zaio.

Arau hauste arinak 750 eurora arteko isunarekin zigortuko dira eta pertsona horri ohartarazpena egingo zaio.

37. artikulua. Zehapenen mailaketa

Aplikatu behar den zehapena mailakatzeko honako hauek hartuko dira aintzat:

- Arau haustea behin baino gehiagotan egin den.
- Arau hausleak nahita egin duen.
- Gertakariak gizartean zein eragin duten.
- Egingandako kalteen larritasuna eta ezaugarriak.

38. artikulua. Zehatzeko prozedura

Hauxe izango da zehapena zehatzeko prozedura:

1. Instalazioko atezainak espedientea abiaraziko du alkateari zuzendutako txosten bat idatziz; txosten horretan zehatu daitekeen jokaera, inguruabarrak eta zehapen proposamena zehaztuko ditu.

2. Alkateak zehatzeko proposamena idatziko du eta idatziz jakinaraziko dio ustez arau haustea egin zuen pertsonari, hark 15 egun naturaleko epean alegazioak aurkez ditzan.

3. Epea igarota, bidezkoa den zehapena ezarriko da.

39. artikulua. Kalteak konpontzea

Zehapena ezartzeaz gain, arau hausteari berak eraldatutako egoera lehengoratzeko eska dakioko, bai eta sortutako kalte-galerak ordaintzeko ere.

Udalarenak diren ondasunei kalterik eginez gero, udal zerbitzu teknikoek konponketaren zenbatekoa zehaztuko dute, eta arau hausteari edo haren ordean erantzun behar duenari jakinaraziko zaio, ezartzen den epean ordain dezan.

40. artikulua. Arduradunak

Egile materialak izango dira arau hausteen erantzule zuzenak, salbu eta adin txikikoak badira edo legezko ezintasun kausaren batean sartuta badaude; horrelakoetan legezko zaintza dutenek erantzungo dute haien ordez.

Arau haustea zenbait pertsonak batera egin badute, guztiek erantzungo dute solidarioki.

Kalteen erantzule solidario izango dira, halaber, beste batzuek egin ditzaketen administrazioako arau hausteei aurre hartzeko legezko betekizuna duten pertsona fisiko edo juridikoak.

41. artikulua. Txartelak behin-behinean konfiskatzea

Pertsona batek zerbitzu baten berriazko txartela aurkezten duenean gizarte eta kultura etxeko langileek uste badute arrazoiren bat dela medio pertsona horrek abonatu izaera galdu duela, edo aurkeztutako txartela behar den bezalakoa ez bada, une horretan sartzen utziko zaio, baina txartela entregatu beharko du eta hura gizarte eta kultura etxean geratuko da sarbidea eragozten duen arrazoia ebatzi arte.

Zortzigarren titulua. Egonaldi bakoitzerako berriazko arauak

42. artikulua. Kantxa**42.1 Erabilera arauak.**

Honako hauek erabili ahal izango dituzte kantxa: banakako erabiltzaileek, antolatutako taldeek, kirol klubek, ikastetxeek, erakundeek nahiz pertsonak, haien erabilerarako kontratua tarteko; baita programazio barruan eta ordu jakinetarako antolatzen diren ikastaroetarako ere.

Udalak bere gain gordetzen du zentroaren erabilera ixteko aukera, kultur edo kirol interesagatik edo arrazoi teknikoengatik. Orobat, bertan behera utzi ahal izango du erabilera eskubidea, erreserba egin bada ere; hori garaiz jakinarazi beharko du.

Udalak ez du bere gain hartuko instalazio guztietan kirola egiten dihardutenek izandako istripuengatik erantzukizunik, 8. artikuluan adierazitakoa salbu.

Galarazita dago aldageletan edo kantxarako pasabideetan baloi, pilota edo bestelakoekin jolastea eta/edo berotze ariketak egiten aritzea.

Kirol jardunerako material eta arropa egokia erabili behar izango da. Horrela, oinetakoekin eduki beharko da kontu berezia, eta parketa markatzen ez duten zolak erabili beharko dira. Arrazoi beragatik eskatzen da kalean erabilitako oinetakoak ez erabiltzeko kantxan, batez ere neguan. Beraz, entrenamendu, partida eta jokoetan bakarrik erabiltzeko oinetakoak eduki beharko dituzte kirolariek.

Kirol materialaren ohiko kokapena edo material periferikoaren erabilera aldatu behar izanez gero (hala nola saskiak, gortinak, markagailuak edo antzekoak), baimena eskatu behar izango zaio atezaintzari.

Jarduerak hasteko eta amaitzeko ordutegiak errespetatu behar izango dira.

42.2 Erabilera moduak.

Kantxarako zenbait erabilera mota ezarri dira:

42.2.1. Guztientzako kirol jarduerak.

Udalak pertsona guztiei zuzendutako kirol jarduerak antolatuko ditu, dagoen eskariaren arabera; jende guztiak izango du haietan parte hartzeko aukera, inolako bazterketarik gabe.

Udalak erabiltzaileei gomendatzen die programatutako edozein jarduera hasi baino lehen osasun azterketa egiteko. Izan ere, egokitza jotzen badu azterketa hori, hura agintzeko eskubidea izango du.

Jarduera bakoitzari begira, espezialitatea kontuan izanik, honako hauek zehaztuko dira:

- kuota
- aldia
- parte hartzaileen kopurua
- sartzeko baldintzak
- Adina
- izena emateko tokia, ordutegia.
- beste baldintza batzuk jardueraren arabera.

42.2.2 Programatutako erreserbak

Kantxaren erreserbak 29. eta 30. artikuluetan ezarritako baldintza orokorren arabera egingo dira. Hala eta guztiz ere, baldintza bereziak ezarriko dira honako kasu hauei begira:

42.2.2.1 Ikastetxeek egindako erreserbak.

Ikastetxeak egin beharko du erreserba urte bakoitzeko iraila baino lehen eta udalak onetsitako prezio publikoen ordenantzan ezarritako zenbatekoa ordainduko du edo, hala badagokio, hitzarmen bitartez adostutako zenbatekoa.

Jarduera honakoa izango da: heziketa fisikoa ematea eta ikasleen kirol eta jolas jarduerak garatzea; horretarako, irakasleak betiere lagundu behar izango die ikasleei.

Lagapena, kasu bakoitzean, udalak ezarritako baldintzetan bideratuko da.

Udalak ez du bere gain hartuko ikasleek instalazioan izan ditzaketen kalteen erantzukizuna, 8. artikuluan ezarritakoa izan ezik.

42.2.2.2 Klubek, federazioek, taldeek, elkarteek eta erakundeek egindako erreserbak.

Kirol denboraldia irailetik hurrengo urteko uztaile bitartekoa da.

Eskaera arautegi honen 1. eranskinak araututako inprimaki batean egin behar izango da.

Asteburuetako kirol partiden egutegiak federazioek egingo dituzte 10 egun lehenago. Udalak egutegi horiek aldatzeko eskubidea du.

Erreserbak ez du bere barnean hartzen udalaren jabetzako materialaren erabilera.

42.2.2.3 Haurren jokoetarako erreserbak.

Honako baldintza hauen arabera egin beharko da:

- Kantxa oso-osorik alokatu behar izango da.
- Erreserba adinez nagusia den pertsona batek egin beharko du; bere datu pertsonalak eman beharko ditu eta bertan gertatzen den guztiaren arduraduna izango da erabili bitartean.
- Gerta litezkeen kalteak konponduko direla bermatzeko, 100 euroko bermea gordailatu beharko da; zenbateko hori itzuliko da, behin atezaintzak aldeko txostena egin eta gero; hau da, bermea itzultzeko, txostenean adierazi beharko da ez dela kalterik eragin eta ez dela ohiz kanpoko zikinkeriarik utzi.
- Haurrak etengabe kontrolatuta egon beharko dira, eta haien ardura daukaten helduek kontrolatu beharko dituzte.

42.2.2.4 Zuzeneko erreserba bereziak.

Administrazioek, elkarteek edo erakundeek unean uneko jardueretarako egingo dituzte, eta idazki bat bidaliko diote Sologana batzorde bereziaren lehendakariari zehaztuz zer jarduera egin nahi den eta zein egun eta ordutan, hamar egun lehenago behintzat.

43. artikulua. Muskulazio-fitness gela

43.1 Sartzeko modua.

Muskulazio-fitness gelak ordutegi berezia izango du, Sologana gizarte eta kultur etxearen gainerako zatitik apartekoa. Norbanakoak gelara sartu ahal izango dira 7:00etatik 21:30era bitartean, jarraian, astelehenetik igandera. Hartara, erabiltzaileei txartela egingo zaie; horretarako honako hauek eman beharko dizkiete informazio zerbitzuari:

- txartel baten tamainako argazkia.
- zuzen betetako inskripzio orria.
- inskripzioa ordaindu dela egiaztatzen duen banku agiria.

43.2 Erabilera arauak.

• Muskulazio gelako erabiltzaile guztiei gomendatzen zaie alde zuzenetik osasun azterketa bat egiteko.

- Asistentzia orrian sinatu behar da.
- Norberaren gauzak eta jantziak armairuan utziko dira.
- Ez da materialik mailegatuko.
- Makinak zuzen erabili beharko dira. Nola erabili jakin ezean, monitoreari galdetuko zaio.
- Beharrezkoa da esku oihal bat erabiltzea gorputzaren eta tresnen artean kokatuz; era berean, makinak erabilitakoan, bertan utzitako izerdia garbitu behar izango da.
- 16 urtetik beherakoek debekaturik dute muskulazio makinak erabiltzea.
- Erabiltzaileek kirol oinetako egoki eta garbiak eta jantzi aproposak erabili behar izango dituzte; ez dago baimenduta jarduera egitea soina erakutsiz.

44. artikulua. Rokodromoa

44.1 Sartzeko modua.

Rokodromora sartzeko, alde zuzenetik alokairuaren kuota ordaindu behar izango da; kuota hori egun, hilabete, hiruhileko edo urtebetekoa izan daiteke, salbu eta egunero alokatzen bada.

Erabiltzaileari txartel bat emango zaio, eguneko kuoten kasuan izan ezik; txartel horretan ordaindutako epea agertuko da eta erabiltzaileak atezaintzako arduradunari erakutsi behar izango dio, hala eskatuz gero.

44.2 Erabilera arauak.

- Nahitaezkoa da segurtagailu guztietan mosketoia jartzea; hori ahalik eta azkarren egingo da.
- Ezin izango da, inola ere, 3 metrotik gorako garaiera gainditu sokarik gabe.
- Jarduna une horretan bertan aurrera eraman nahi duten erabiltzaileak baino ez dira egongo rokodromoan.
- Hormako elementuak ezin izango dira aldatu (presen aldaketa, markak). Instalazioko langileari aurkitutako ezohiko egoeren berri eman beharko zaio: presen mugimendua, segurtagailuen haustura, ezohiko portaera eta antzekoak.
- Rokodromoan gehienez ere 10 erabiltzaile egon ahalko dira.
- Rokodromoa erabiltzeko gutxienezko adina 14 urtekoa izango da; hala ere, adin txikikoak sartu ahal izango dira, betiere helduek lagunduta.
- 16 urtetik beherako guztiek gurasoen edo tutoreen baimena beharko dute, inskripzioa egin ahal izateko.

45. artikulua. Ispilu gela

Ezin izango da barrura sartu kaleko oinetakoekin.

Kirol material guztia adierazitako tokian gorde beharko da.

Entrenatzaileek arau horiek betearazteko zuzeneko ardura izango dute.

Ispilu gela alokatzeko aukera dago kirol jarduera aurrera eramateko; horretarako, ordaindu beharreko kuotak ordaindu behar izango dira.

46. artikulua. Gazte kluba

Gazte kluba udal ekipamendu bat da, gazteei zerbitzuak eskaintzen dizkiena aisialdiko, astialdiko eta gizarte nahiz kultur arloko zabalkundeko jarduerak aurrera eramateko; era berean, gazte klubak gazteek egindako proposamenak ere kontuan hartu ahal izango ditu. Erroldatuta dauden eta 9 urtetik 17 urtera bitarteko gazte guztiak erabili ahalko dute gazte kluba, erabiltzeko baimena atezaintzan eskatu eta gero.

Gehienez ere hamabost pertsona sar daitezke.

Gazte kluba txukun utzi beharko da jarduera bakoitzaren ondoren; aulki eta mahaien kokapena aldatuz gero, erabilera amaitutakoan dena utzi beharko da alde zuzenetik zegoen moduan.

46.2. Jardueren ezaugarriak.

Gazte klubean aurrera eramango diren jarduerak eta programak bi motatakoak izango dira:

- Udalak antolatutako jarduerak eta programak.
- 9tik 17 urtera bitarteko gazteek, elkarteek eta taldeek erabilera askea izango dute, behin atezaintzan erreserbatu eta gero.

46.2.1 Jarduera antolatuak.

Udalak jarduerak antolatu ditzake noizean behin, eta izena eman beharko da alde zuzenetik; horretarako, interesdunek fitxa bete beharko dute ezarritako epeen barruan.

Antolatutako jarduera horietan gorago aipatutako adin tartean dauden gazte guztiak parte hartu ahal izango dute.

46.2.2 Erabilera askea.

Udalak noizean behin antolaturiko jarduerak kanpo erabili ahalko dute gazte kluba 9 urtetik 17 urtera bitarteko erabiltzaileek, elkarteek eta taldeek, behin atezaintzan erreserba egin eta gero.

Erabilera askera jotzen bada, adin txikikoak heldu batek lagunduta egon behar dira. Bederatzi erabiltzaileentzat arduradun bat egongo da, eta hamar erabiltzaile baino gehiago badago bi arduradun egongo dira.

46.3 Hausturak eta konponketak.

Erabiltzaileek kontuz jardun beharko dute instalazioa eta altzariak erabiltzean, bereziki ikus-entzunezko materiala erabiltzean. Erabiltzailea egotz dakizkiokeen kalteen arduraduna izango da eta, hala badagokio, arduradunari edo atezainari ezbeharren edo gorabeheren berri eman beharko dio, bai eragindako kalteen berri, bai ikusitakoen berri.

47. artikulua. Liburutegia

Espazio honetan komunitateari irakurtzeko erraztasunak ematen zaizkio; orobat, haren erabilera antolaturik dago baliabideei ahalik eta probetxurik gehien ateratzeko.

47.1. Sartzeko modua.

Liburutegia zabalik dago ezarritako ordutegian instalazioa doan erabili nahi duten eta horra sartzeko prest dauden pertsona guztientzat.

Mailegu zerbitzuaz baliatu ahal izateko, beharrezkoa izango da liburutegiko txartela izatea.

47.2. Liburutegia erabiltzeko arauak.

Liburutegiko zerbitzuaz baliatzen diren pertsonak dokumentuak, instalazioak eta liburutegiko gainerako tresnak zuzen erabili beharko dituzte, eta erabiltzaile guztien ondarea diren heinean errespetatu. Behar den bezala ez erabiltzeagatik hondatzen badira horren erantzule izango dira eta galtzen edo hondatzen den materialaren ordezkaria izango dira.

Liburutegietan ez dago ez ozen hitz egiterik ez instalazioko lasaitasuna hauts dezakeen beste tresnarik erabiltzerik.

Debekaturik dago liburutegi barruan jatea.

Sei urtetik beherakoei uneoro lagundu behar izango diete helduek.

Seitik hamalau urtera bitarteko haurrak instalazioak egon ahalko dira heldu baten laguntzarik gabe, baina betiere gurasoen edo tutoreen arduraren pean. Liburutegia ez da adin txikikoak zaintzeaz arduratuko.

Atezainak sarbidea galarazi egin ahalko die arau hauek betetzen ez dituzten pertsonari, edo bestela bota egin ahalko ditu.

47.3. Liburutegiko txartela.

Liburutegiko txartela interesdunak eskatu beharko du; horretarako atezaintzan emango dioten inprimakia beteko du eta NANA eta agiriatarako argazki bat aurkeztuko ditu.

Emandako datu pertsonalak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesarena, oinarri hartuta tratatuko dira.

Txartela galduz gero, hori berehalakoan jakinarazi beharko zaio atezaintza zerbitzuari.

47.4. Mailegu zerbitzua.

47.4.1 Mailega daitekeen materiala.

Liburutegiak mailegurako zehaztutako obra edo material guztiak mailegatu ahal izango dira. Katalogoan mailegagarri gisa agertuko dira.

Ondorengoak oro har ez dira mailegatuko:

- Erreferentzia obrak (hiztegiak, atlasak, entziklopediak).
- Indarreko hileko aldizkariak. Aurreko hileetakoak bai.
- Katalogoan mailegaezintzat hartzen diren obrak.

47.4.2 Maileguaren baldintza orokorrak.

• Liburutegiko txartelaren jabeek gehienez ere bi dokumentu eraman ahal izango dituzte, honako hauen artean:

- liburuak
- aldizkariak

• Mailegua hamabost egunerako izango da.

• Mailegua berritu ahal izango da, baldin eta hasierako epea gainditu ez bada; erabiltzaileek bi berrikuntza egiteko eskubidea izango dute.

• Ezin izango dira berritu beste erabiltzaile batek aldeztu aurretik erreserbatutako dokumentuak.

• Maileguak ez dira telefonoz berrituko.

• Dokumentuak zuzenean itzuli behar izango zaizkio arduradunari; arduraduna ez da zuzenean eman ez zaizkion dokumentuen erantzulea.

47.4.3. Erreserbak.

- Beste erabiltzaile bati mailegatutako dokumentuak erreserbatu ahal izango dira, erreserba arduradunaren bitartez izapidetuz.
- Pertsona bakoitzak gehienez bi erreserba egin ahal izango ditu.
- Arduradunak eskatzaileari jakinaraziko dio noiz egongo den eskuragarri erreserbatu duen dokumentua.
- Erreserbei bakarrik eutsiko zaie bi egunez jakinarazi direnetik; epe hori igaro ondoren, hurrengo erreserbara pasatuko da edo apalategian jarriko dira mailegatuak edo kontsultatuak izateko.
- Pertsona batek alde aurretik erreserbatutako dokumentu batenganako interesa galtzen badu, arduradunari jakinarazi beharko dio.
- Ez da erreserbarik egingo telefonoz.

47.4.4. Zehapenak

Dokumentuak itzultzeko atzerapenik egonez gero, zerbitzua erabiltzeko eskubidea etengo da liburua itzultzeko berandutzaren baliokidea izango den denbora tarte batean.

Maileguan hartutako materiala itzultzeko epeak behin eta berriro betetzen ez badira, erabiltzaile txartela behin betiko kendu ahal izango da. Zerbitzuko arduradunak ebartziko du hori, ukitutako pertsonari alde aurretik jakinarazita.

Zerbitzuaren erabiltzaileek materiala onik zaindu beharra dute. Dokumentua hondatuta dagoela antzemanaz gero, liburutegiko arduradunari ohartaraziko diote. Erabiltzaileek dokumentua hondatu edo galtzen badu, berria itzuli beharko du. Lana agortuta balego, antzeko batez ordezkatu beharko luke, adierazitakoarekin bat etorritz. Baldintza hori bete ezean, pertsona hori ezingo da mailegu zerbitzuaz baliatu.

47.5. Aretoan kontsultatzeko eta irakurtzeko zerbitzua.

Edonor sar daiteke irakurketa aretoan; zerbitzua doakoa da.

Irakurketa lekuak ezin dira erreserbatu, ez eta hogeita hamar minutu baino luzaroago erabili gabe utzi ere. Epe hori igarotakoan, arduradunak inor ez dagoen lekuan utzitako materiala bertatik kentzeko ahalmena izango du.

Liburutegiko funtsak kontsultatzera doazen pertsonak izango dute bertan egoteko lehentasuna, beren materialak ikastera doazenentzako aurretik.

Norberak behar dituen materialak apaletatik hartu ahalko ditu. Kontsultatu ondoren horretarako zehaztutako lekuetan utziko ditu, eta arduraduna arduratuko da berriro apaletan jartzeaz.

48. artikulua. Ludoteka

Otik 8 urtera bitarteko adina duten haurren aisialdi premiak betetzera zuzendutako espazioa da. Otik 3 urtera bitarteko haurrei pertsona heldu batek lagundu beharko die uneoro.

Espazio honetan aisialdi eta didaktika arloko materiala dago eta bertan begirale batek jardun eta parte hartuko du; begirale horrek egingo diren programazioak eta jarduerak zuzenduko ditu, parte-hartzaileen sozializazioa eta garapen integrala sustatzeko asmoz.

48.1. Sartzeko modua.

Ludotekaren aretora sartu ahal izateko, eguneko edo urteko bono bat eskuratu beharko da, behin horretarako ezarritako prezio publikoa ordaindu eta gero. Urteko bonoa duten erabiltzaileei txartel bat egingo zaie; txartel hori zerbitzuaren begiraleari erakutsi beharko diote. Gainerako erabiltzaileek eguneko bonoaren ordainagiria erakutsi beharko dute.

Txartela galduz gero, hori berehalakoan jakinarazi beharko zaio atezaintza zerbitzuari.

48.2. Espazioaren erabilera.

Ludotekaren erabiltzailearen gurasoak edo tutoreak izango dira adin txikikoek materialak egokiro erabiltzeko arduradunak.

Ludotekan jatea debekaturik dago, berariaz baimendutako jardueretan izan ezik.

Era berean, galarazita dago haurren gurditxo edota aulkiekin sartzea.

Ludotekaren arduradunen jarraibideak errespetatu beharko dira.

Saioa amaitutakoan, parte-hartzaileak arduratuko dira materialak batzeaz, arduradunaren ikuskapenaz edota laguntzaz.

Gaixotasun infekto-kutsakorrek dituzten haurrak ezin izango dira ludotekara sartu.

48.3 Jostailuen mailegua.

Ludotekan izena emateak jostailuen mailegua doan erabiltzea erraztuko du. Adin txikikoen gurasoak edo tutoreak jostailuaren erabileraren arduradunak izango dira ludotekatik ateratzen den momentutik itzultzen den arte.

Maileguak ludotekan zehaztutako egun eta orduetan eskatuko dira; horretarako, ondorengo arauak bete beharko dira:

- Aldi bakoitzean jostailu bakarra eskatu ahal izango da.
- Jostailu bera ezin izango da birritan jarraian mailegatu.
- Maileguaren gehieneko iraupena astebetekoa izango da.
- Itzultzean justifikaziorik gabeko atzerapenik egonez gero, gutxieneko zigorra honakoa izango da: astebete igarotzea mailegu zerbitzua erabili gabe.
- Atzerapena zazpi egunetik gorakoa bada, egun bat gehiagoko zigorra ezarriko da atzerapen egun bakoitzeko.
- Piezaren bat galdu edo apurtuz gero, jostailua itzuli beharko da eta, konpondua izateko aukerarik egonez gero, haren balioaren ehuneko 50 ordainduko da. Jostailua guztiz hondatu eta jolasteko balio ez badu edo galdu bada, haren balioaren ehuneko 100 ordainduko da.

49. artikulua. Bulegoak eta askotariko erabileretarako aretoa

Bulegoen eta askotariko erabileretarako aretoaren erabileran lehentasuna izango dute udal-erriarekin zerikusia duten jarduerak; hala eta guztiz ere, erreserbatu ahal izango dira libre egonez gero.

Aipatutako gelen erreserba atezaintzan egingo da

Bulegoak eta aretoa erabili ahal izateko, kasu bakoitzean aplikatu beharreko prezio publiko ordaindu beharko da. Udalak interesgarritzat jotzen dituen ekintzak alokairua ordaintzetik salbuetsiko dira.

Erreserba egiten duen pertsonak instalazioa eta bertan dauden altzariak eta materiala zaintzeko ardura izango du.

50. artikulua. Aldagelen arauak

Aldagelak eta komunak euren zereginetarako baino ez dira erabiliko, gizalegez; hartara, beharrezko denbora tartean baino ez dira erabiliko eta beste talde batzuentzat edo garbiketa zereginak betetzeko libre utzi beharko dira.

Ur eta argiaren kontsumoa neurrizkoa izango da, alferrikako kontsumoak saihestuz.

Erabiltzaileak dutxa eremuan sikatuko dira eta ez aldagelen inguruan.

51. artikulua. Kanpoko kiroldegi jokoak eta aisialdi eremuak

Pertsona guztiak bertara daitezke instalazioetara eta horiek erabili; erabilera hau ez dago mugaturik, sarrera askea baita.

Erabiltzaileen adina egingo den jardueraren arabera izango da; horretarako, kontuan hartu beharko dira atezaintza zerbitzuaren ohartarazpenak.

Udalak joko hauek okupatzeko eskubidea gordetzen du, bere jarduerak garatu ahal izateko.

Lorategietara etxeko animaliak sartu ahal izango dira, loturik badaude. Haien jabe edo arduradunek jaso behar izango dituzte animalion gorozkiak.

Bederatzigarren titulua. Bestelako alokairuak

52. artikulua. Altzariak eta tresnak alokatzea

Udalarenak diren eta beren erabilera ezaugarrien ondorioz beste erakunde edo pertsona batzuek erabil ditzaketen altzari eta tresnak alokatu ahal izango dira; horretarako, zerga ordenantzan ezarritako prezioa ordaindu beharko da.

Alokairua idatzizko eskabidearen bitartez egingo da; horretarako, pertsona edo erakunde eskatzailearen identifikazio datuak erantsiko dira, bai eta erabiliko den ondasunari dagokion bermea ere.

Elementu jakin batzuk erabili edo muntatzeko, udalak erabaki ahal izango du zein enpresak edo pertsonak egin behar dituzten lan horiek, kontuan hartuta lan horien eta materialen garraioaren kostua beti izango dela erabilera edo muntaia hori eskatu duen erabiltzaile edo erakundearen kontura.

53. artikulua. Kirol arlokoak ez diren ekitaldietarako alokairuak

Artikulu honen helburua honakoa da: erabiltzaileek Sologana gizarte eta kultura etxeko instalazioa kultura jardueretarako edo erlijiozkoak ez diren kirolaz kanpoko jardueretarako erabiltzeko dituzten eskubide, betebeharrak eta baldintzak arautzea.

Udalak eskabidea baloratuko du, betiere instalazioen lagapena ukatzeko eskubidea gordez.

Erreserba egiteko:

- I. eranskinaren inprimakiaren arabera eskaera; gutxienez ekitaldia egin baino astebete lehenago aurkeztu beharko da.

- Udalak eskaera aztertu eta idatziz erantzungo du ahalik eta azkarren. Eskaera onartu eta data horretan instalazioak libre egonez gero, eskatzaileak bost egun balioduneko epea izango du erreserba egiteko, behin ezarritako prezioa eta bermea ordaindu eta gero.

- Instalazioaren aldeko erantzukizun zibileko poliza bat eskatu ahal izango da Sologana gizarte eta kultura etxearen alde, kontratuan zehaztuko den eta lagapen idatzian jakinaraziko den zenbateko batean, bai eta poliza horren ordainagiria ere.

- Ekitaldia hasi baino 48 ordu baino lehenago, eskatzaileari eskatuko zaio, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako baimenaren kopia.

- Instalazioa zegoen bezala utzi behar da, eta ahalik eta gehien errespetatu behar da instalazioa libre uzteko ordua. Eusko Jaurlaritzaren aginduen arabera ezarriko da ekitaldia amaitzeko ordua.

- Instalazioan kalterik egin ez dela eta egitekotan eskatzailearen aseguruak ordainduko dituela egiaztatu ostean itzuliko da bermea. Aseguruak jardueraren ondoriozko gastu guztiak ere estaliko ditu.

- Gastuek bermearen zenbatekoa gainditzen badute, eskatzaileak ordaindu beharko du gehiegizko kopuru hori.

- Gasturik ez badago eta erreserba ezeztatzen bada, bermea oso-osorik itzuliko da. Jarduera bertan behera utzi arren gastuak izan badira, ordea, bermearen bidez ordainduko dira; eta gastuek bermearen zenbatekoa gainditzen dutenean, gehiegizko kopuru hori eskatzaileak ordainduko du.

- Sustatzaileak ez du jarriko ikuskizunarekin zerikusirik ez duen publizitaterik eta ez ditu estaliko instalazioan dauden iragarkiak.

- Sustatzailearen konturakoak izango dira baimen eta lizentzien izapideak eta gastuak, egile eskubideen ordainketa eta instalazioan egingo den jardueraren estatu, lurralde eta udal mailako zerga guztiak. Era berean, sustatzailearen konturakoak izango dira honako gastu hauek ere: ekitaldiaren aurreko publizitatea, alokairua, aulkiak jarri eta kentzea, energia elektrikoa, garbiketa eta instalazioetako pistak estaltzeko moketak jarri eta kentzea, halakoak dituzten instalazioetan. Halaber, honako langile hauen gastuak ere: ate eta armairuetako langileak, eszenategia eta tribuna osagarriak muntatu desmuntatu eta garraiatzeko langileak. Era berean, sor litezkeen eta aurretiaz ezarri ez diren bestelako ordainketa eta gastuak ere, Udalaren kargurako premien artean ez badaude.

- Udalak segurtasuna, ateak eta armairuak zaintzeko langilerik behar den ala ez zehaztuko du; era berean, langile horien kokapena finkatuko du sarbide zerbitzuak emateko eta ikusleak euren lekura bideratzeko. Ekitaldiaren muntaian zuzenean edo zeharka esku hartzen duten gainerako langileak bezala kontratuko dira, antolatzailearen kontura.

- Jarduera sustatzen duenak enpresa izaera izango du ondorio guztietarako, eta kontratatutako ekintza horren antolaketan parte hartzen duten guztien ugazaba izango da. Bere ardura izango dira bertaratutako publikoak egindakoak.

- Sustatzaileak instalazioaren kanpoaldeko segurtasun eremu hesitua libre izango du, hau da, baimenik gabeko ibilgailu eta oztoporik gabe.

- Instalazioetako esparrura ezin izango da sartu ekitaldirako ezarritako edukiera gainditzen duen ikus-entzule kopurua.

Hamargarren titulua. Azken xedapenak

54. artikulua. Artikulu osagarriak

Zenbait zerbitzu erabiltzeak, artikulua osagarriak eta zabalagoak eragin ditzake, erabiltzaileek hobeto uler dezaten.

55. artikulua. Ebazpenak

Araudi honetan agertzen ez diren kasuak, hasiera batean, Sologana gizarte eta kultura etxeko atezainak ebatziko ditu; gerora, udalak ebatzi ahal izango du kasu jakinaren inguruan.

56. artikulua. Aldaketak

Arautegi honen aldaketak egoki argitaratuko dira, ahalik eta zabalkunderik gehien izan dezaten.

57. artikulua. Indarrean jartzea

Arautegi hau indarrean jarriko da behin ALHAOn argitara eman eta Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2. artikulua ezarritako epea igaro eta gero.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da, eta jakinarazten honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian jarri ahal izango dela, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Dura, 2016ko irailaren 27a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE

LEKU- ERRESERBA EGITEKO ESKAERA ORRIA
SOLICITUD DE RESERVA DE ESPACIOS

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD			
Izena eta bi abizenak edo Sozietatearen izena Nombre y dos apellidos o Razón Social		NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF	
NOREN ORDEZKARITZAN EN REPRESENTACIÓN DE		IFK /NIF – NAN / DNI	
Izena eta bi abizenak edo Sozietatearen izena Nombre o Razón Social y dos apellidos		NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF	
Ondorengoa izanik/ en calidad de			
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK DATOS PARA ENVIO DE NOTIFICACIONES			
<input type="checkbox"/> Eskatzailea / Solicitante		<input type="checkbox"/> Ordezkaría / Representante	
Kalea / Calle	Zk / N ^o	Solairua / Piso	Aldea / Mano
Posta-Kodea / Código Postal	Herría/ Localidad	Lurraldea / Provincia	
e-posta / e mail	Telefono zk. / N ^o Teléfono	Sakelakoaren zk. / N ^o móvil	
PARA DOMICILIAR EL ADEUDO			
BANKU ENTITATEA/ENTIDAD BANCARIA: _____			
N ^o IBAN: _____			
Baimena ematen dut nire datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informaziorako soilik BAI/SI			<input type="checkbox"/>
Autorizo que mis datos formen parte de la base de datos del Ayuntamiento únicamente para efectos Informativos municipales EZ/NO			<input type="checkbox"/>
ERRESERBATZEKO LEKUA ESPACIO A RESERVAR			
<input type="checkbox"/> KANTXA / CANCHA		<input type="checkbox"/> ERABILERA ANITZEKO GELA / SALA POLIVALENTE	
<input type="checkbox"/> ISPILU GELA / SALA ESPEJOS		<input type="checkbox"/> DESPACHO / BULEGOA	
<input type="checkbox"/> BESTELAKOAK/OTROS:			
EGINGO DEN EKINTZAREN DESKRIKAPEN ZEHATZA/ DESCRIPCION DE LA ACTIVIDAD:			
HASIERA DATA	BUKAERA DATA	HASIERA ORDUA	BUKAERA ORDUA

FECHA DE INICIO	FECHA DE FIN	HORA DE INICIO	HORA DE FIN
PARTE HARTZAILEEN ZENBATEKOA / NUMERO DE PARTICIPANTES			
MATERIAL OSAGARRIEN BEHARRA/NECESIDAD DE MATERIAL COMPLEMENTARIO			
AURREIKUSITAKO MATERIAL PROPIOAK/ MATERIAL PROPIO PREVISTO			
Data / Fecha		Sinadura / Firma	

ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE
ESTA SOLICITUD SE PUEDE ENTREGAR EN:

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia

Uribea Kalea, 12

01520 – Durana (Araba)

www.arratzua-ubarrundia.com

Ordutegia / Horario

<p>Aurrez aurre: Udalean Uribea Kalea, 12 – Durana Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara Postaz: Posta ziurtatu irekiaren bitartez posta bulegoetan Helbide elektronikoa: ibasokultura@cuadrillaalava.com Informazio gehiagorako, deitu: 945 29 95 16</p>	<p>Presencialmente: En el Ayuntamiento Calle de Uribea, 12 – Durana Horario de Lunes a Viernes de 8:00 a 14:00. Por correo postal: En las oficinas de correos mediante correo ordinario. E-mail: ibasokultura@cuadrillaalava.com Para más información llamar al 945 29 95 16</p>
--	--

<p>DATUEN BABESA Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetz, Arratzua-Ubarrundiako Udalak jakinarazten ditu, inprimaki honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horren xedea eta baita Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren historia, estatistika edo zientzia xedeetarako erabiltzeko aukerarekin, beti ere, ezarri beharreko legegitza betetz. Herri administrazioen eskura dauden xedapen ezargarrietan jarritako legeko epeetan gordeko dira zure datuak, horien tratamendutik sor daitezkeen balizko erantzukizunak kontuan hartzeko, beti ere, datuok sekretupean eta gordeta izateko betebeharra betetz. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, Honako helbide honetara jo dezakezu: Arratzua-Ubarrundiako Udala, Uribea Kalea nº 12 – 01520 – Durana (Araba)</p>	<p>PROTECCIÓN DE DATOS En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia le informa que sus datos personales, obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. La finalidad del fichero es la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias y la adecuada prestación de los servicios que ofrece el Ayuntamiento, sin perjuicio de su posible tratamiento posterior para fines históricos, estadísticos o científicos, de acuerdo a la legislación aplicable. Sus datos serán conservados, durante los plazos legalmente previstos en las disposiciones aplicables, a disposición de las Administraciones Públicas, para la atención de las posibles responsabilidades nacidas del tratamiento y siempre bajo el deber de secreto y reserva. Si lo desea, puede ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos por la ley, ante el Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia, c/ Uribea, nº 12 – 01520 Durana (Alava).</p>
---	--